

# URKIOLA PARKE NATURALA
# PARQUE NATURAL DE URKIOLA

## Hezkuntza programa
## Programa educativo

Ikastetxeak • Centros escolares

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

- Bisita euskaraz zein gazteleraz burutu daiteke eta **doakoa** da, 12. programa izan ezik.
- Garraioa eta janaria ikastetxearen kontu izango dira.
- 10:00etatik eta 16:00etara bitartean burutzen da programa. Ordutegi hau orientagarria da eta ikastetxearen ordutegira molda daiteke.
- Ibilbidea gauzatzeko, mugikortasun murriztua duten ikasleentzat mendirako aulki berezia (Joëlette aulkia) eskaintzen da.

- La visita podrá realizarse en euskera y/o en castellano. Es totalmente **gratuita** excepto el programa 12.
- El transporte y la comida corren a cargo del centro escolar.
- La duración del programa es de 10:00 a 16:00. Este horario es orientativo y se puede ajustar al horario del centro escolar.
- El alumnado con movilidad reducida dispone de una silla todo terreno (silla Joëlette) para realizar el itinerario.


Letona Korta


Letona Korta



Toki Alai

# Ekipamenduak • Equipamientos

## TOKI ALAI PARKETXEA · PARKETXE TOKI ALAI

Erakusketa interaktiboa eta Parkeari buruzko ikus-entzunezkoa dago zentroan.

El centro está equipado con una exposición interactiva y un audiovisual sobre el Parque.

## LETONA KORTA BASERRIA · CASERÍO LETONA KORTA

Ekintza anitzeko gela dago, baita eguraldi txarra egiten duenerako jantokia ere.

Equipamiento con sala multiusos para actividades y para comer en caso de mal tiempo.

## HEGAZTIEN BEHATOKIA · OBSERVATORIO DE AVES

Letona Korta inguruetan bertako hegaztiak ikus daitezke.

En las proximidades de Letona Korta se pueden observar aves del entorno.



# Programa Didaktikoak • Programas Didácticos

| | |
|---|---|
| 1 Programa | Urkiolan Buztangorrirekin jolasean • Jugando con Buztangorri en Urkiola |
| 2 Programa | Mari, Anbotoko Dama • Mari, la Dama de Anboto |
| 3 Programa | Egun bat Urkitxorekin • Un día con Urkitxo |
| 4 Programa | Urkiola ezagutzen • Conociendo Urkiola |
| 5 Programa | Urkiolako fauna • La fauna de Urkiola |
| 6 Programa | Urkiolako altxorrak • Los tesoros de Urkiola |
| 7 Programa | Basoa esploratuz • Explorando el bosque |
| 8 Programa | Gizakia Urkiolan • El ser humano en Urkiola |
| 9 Programa | Urkiolaz blai! • ¡Imprégnate de Urkiola! |
| 10 Programa | Urkiolako pagadia • El hayedo de Urkiola |
| 11 Programa | Gizakiaren aztarna • La huella humana |
| 12 Programa | Ekonomia zirkularra gaztaren inguruan • Economía circular en torno al queso |

| Programa | Haur Hezkuntza / Educación Infantil | Lehen Hezkuntza / Educación Primaria | | | Bigarren Hezkuntza / Educación Secundaria | | Batxilergoa eta Formakuntza Zikloak / Bachillerato y Ciclos Formativos |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1. zikloa / 1er ciclo | 2. zikloa / 2° ciclo | 3. zikloa / 3er ciclo | 1. zikloa / 1er ciclo | 2. zikloa / 2° ciclo | |
| 1 | ✓ | | | | | | |
| 2 | | ✓ | | | | | |
| 3 | | ✓ | | | | | |
| 4 | | | ✓ | | | | |
| 5 | | | ✓ | ✓ | | | |
| 6 | | | | ✓ | | | |
| 7 | | | | ✓ | | | |
| 8 | | | | ✓ | | | |
| 9 | | ✓ | ✓ | ✓ | | | |
| 10 | | | | | ✓ | ✓ | |
| 11 | | | | | | | ✓ |
| 12 | | | | | | ✓ | ✓ |

# Urkiolan Buztangorrirekin jolasean

## Helburu orokorra

Zentzumenen bitartez sentipenak lantzea naturara hurbiltzeko.

## Ekintzak

- **Zentzumenen jolasa:** jolas batekin basoa zentzumenen bidez aztertzen da.
- **Ibilbide didaktikoa (km 1):** Buztangorri azeriaren bizilekua eta bere lagunak ezagutzeko ibilbidea.
- **Toki Alai Parketxea:** ikus-entzunezko baten laguntzaz Buztangorri eta bere lagunak ezagutzen dira. Animalien soinuak lantzeko jolas bat ere burutzen da.
- **Letona Korta baserria:** jolas didaktiko desberdinak burutzen dira eta Buztangorriren kareta marrazten da.





# Jugando con Buztangorri en Urkiola



## Objetivo

Trabajar las sensaciones a través de los sentidos para acercarse a la naturaleza.

## Actividades

- **El juego de los sentidos:** con un juego se explora el bosque a través de los sentidos.
- **Itinerario didáctico (1 km):** itinerario por el bosque para conocer al zorro Buztangorri y otros animales.
- **Parketxe Toki Alai:** a través de un audiovisual se conoce a Buztangorri y otros animales del bosque. También se realiza un juego para distinguir los sonidos de los animales.
- **Caserío Letona Korta:** se realizan juegos didácticos y se colorea la careta de Buztangorri.

# Mari, Anbotoko Dama



## Helburu orokorra

Euskal mitologiako pertsonaia nagusienetarikoa den Mariren laguntzaz, Urkiolako natura ezagutzea, ingurumena babesteko jarrerak garatzeko.

## Ekintzak

- **Zentzumenen ibilbidea:** zentzumenen bidez basoa aztertzen da. Ondoren begiratokitik, Mariren bizilekua eta inguruko mendiak ikusten dira.
- **Ibilbide didaktikoa (km 1):** Mariren pistak jarraituz, Urkiolako alde ezberdinak lantzen dira: paisaia, mitologia, landaretza, fauna...
- **Toki Alai Parketxea:** Parkeari buruzko ikus-entzunezkoa ikusten da eta Urkiolako beste pertsonaia mitologikoak ezagutzen dira.
- **Letona Korta baserria:** Mariri buruzko tailerra.

# Mari, la Dama de Anboto



## Objetivo general

Conocer la naturaleza de Urkiola con la ayuda de Mari, principal personaje de la mitología vasca, para el desarrollo de actitudes de protección del medio ambiente.

## Actividades

- **La ruta de los sentidos:** se explora el bosque a través de los sentidos. Desde el mirador, se observa la morada de Mari y las montañas del entorno.
- **Itinerario didáctico (1 km):** siguiendo las pistas de Mari, se trabajan distintos aspectos de Urkiola: paisaje, mitología, vegetación, fauna...
- **Parketxe Toki Alai:** se ve un audiovisual sobre el Parque y se conocen otros personajes mitológicos de Urkiola.
- **Caserío Letona Korta:** elaboración de un taller sobre Mari.

# Egun bat Urkitxorekin

## Helburu orokorra

Urkiolako fauna eta flora ezagutzea ingurune naturalarekiko jakin-mina pizteko.

## Ekintzak

- **Zentzumenen ibilbidea:** zentzumenen bidez basoa aztertzen da.
- **Ibilbide didaktikoa (km 1):** Urkitxo zuhaitza ezagutuko da eta Parke Naturaleko zuhaitz eta zuhaixka adierazgarrienen hostoak bilatu eta aztertuko dira.
- **Toki Alai Parketxea:** ikus-entzunezkoa eta bisita erakusketara.
- **Letona Korta baserria:** ibilbidean zehar jasotako zuhaitzen hostoekin eskulana.





# Un día con Urkitxo



## Objetivo general

Conocer la fauna y la flora de Urkiola para despertar la curiosidad por el medio natural.

## Actividades

- **La ruta de los sentidos:** se explora el bosque a través de los sentidos.
- **Itinerario didáctico (1 km):** se irá a conocer al árbol Urkitxo y se recogerán y estudiarán las hojas de los árboles y arbustos representativos del Parque Natural.
- **Parketxe Toki Alai:** audiovisual y visita a la exposición.
- **Caserío Letona Korta:** manualidad con las hojas de los árboles recogidas en el itinerario.

# Urkiola ezagutzen

## Helburu orokorra

Parkeko fauna, flora eta pertsonaia mitologiko adierazgarrienak ezagutuz Urkiolako naturara hurbiltzea, ingurune naturalarekiko enpatia pizteko.

## Ekintzak

- **Zentzumenen ibilbidea:** zentzumenen bidez zuhaitzak eta natura aztertzen dira.
- **Ibilbide didaktikoa (km 1):** pisten jokoa Parkeko zuhaitz eta zuhaixka ezberdinak ezagutzeko.
- **Toki Alai Parketxea:** ikus-entzunezkoa, Parkearen alderdi ezberdinei buruzko joko elkarreragilea eta erakusketa ikusiko da.
- **Letona Korta baserria:** Urkiolan bizi diren izaki mitologikoei galdutako tresnak bilatzen lagunduko diegu.





# Conociendo Urkiola





## Objetivo general

Acercarse a la naturaleza de Urkiola: fauna, flora y seres mitológicos más representativos del Parque con el fin de despertar empatía por el medio natural.

## Actividades

- **La ruta de los sentidos:** se exploran los árboles y la naturaleza a través de los sentidos.
- **Itinerario didáctico (1 km):** juego de pistas para conocer los diferentes árboles y arbustos del Parque.
- **Parketxe Toki Alai:** audiovisual, juego interactivo sobre el Parque y visita a la exposición.
- **Caserío Letona Korta:** ayudaremos a los seres mitológicos que habitan en Urkiola a encontrar sus objetos perdidos.

# Urkiolako fauna

## Helburu orokorra

Urkiolako fauna espezie esanguratsuenak eta beraien ezaugarriak ezagutzea, baita dituzten ohitura eta ingurunearekiko moldaerak ere, hauek zaintzeko beharraz sentsibilizatzeko.

## Ekintzak

- **Irudimenarekin jolasean basoan:** irudimena erabiliz, animaliak eta beraien bizilekuak ezagutzen dira.
- **Ibilbide didaktikoa:** zuzenean behatutako aztarnak Urkiolako fauna basatiarekin eta bere ohiturekin lotzen dira.
- **Toki Alai Parketxea:** erakusketa eta joko ezberdinak direla medio, Parkeko fauna eta bere bizilekua lantzen da.
- **Letona Korta baserria:** faunari buruzko tailerrak.





# La fauna de Urkiola





## Objetivo general

Conocer las especies más representativas de la fauna de Urkiola, sus características, hábitos y adaptaciones al medio para sensibilizarse con la necesidad de su conservación.

## Actividades

- **Jugando con la imaginación en el bosque:** utilizando la imaginación, se conocen animales y sus habitats.
- **Itinerario didáctico:** mediante la observación directa de rastros de animales se relacionan dichos rastros con la fauna salvaje y sus costumbres.
- **Parketxe Toki Alai:** a partir de la exposición y diferentes juegos se conoce la fauna del Parque y su hábitat.
- **Caserío Letona Korta:** talleres sobre la fauna.

# Urkiolako altxorrak





## Helburu orokorra

Urkiolako Parke Naturalari buruzko ikuspegi orokorra jasotzea, natur ingurunea zaintzeak duen garrantziaz jabetu daitezen.

## Ekintzak

- **Ibilbide didaktikoa (2 km):** orientazio joko baten bidez, Parkean dauden hainbat altxor ezagutuko dira: paisaia, zuhaitz lepatuak, Parkeko animaliak...
- **Toki Alai Parketxea:** zentroko ikus-entzunezko eta erakusketaren bitartez, geologia, mitologia, fauna eta flora landuko dira.
- **Letona Korta baserria:** ingurunearen erabilera eta giza jarduerei buruzko joko elkarreragilea.
- **Behatokia:** hegaztien identifikazioa prismatikoekin.

# Los tesoros de Urkiola

## Objetivo general

Obtener una visión global del Parque Natural de Urkiola para concienciarse de la importancia de cuidar el medio natural.

## Actividades

- **Itinerario didáctico (2 km):** a través de un juego de orientación, se conocen los tesoros que se encuentran en el Parque: paisaje, árboles trasmochos, animales del Parque...
- **Parketxe Toki Alai:** audiovisual y exposición del centro, incidiendo en la geología, mitología, fauna y flora.
- **Caserío Letona Korta:** juego interactivo sobre los usos y las actuaciones humanas en el medio.
- **Observatorio:** identificación de aves con prismáticos.



# Basoa esploratuz

## Helburu orokorra

Bertako basoa eta hor bizi den fauna eta flora ezagutzen, natura zaintzeko jarrerak sustatzen dira.

## Ekintzak

- **Ginkana:** froga batzuen bitartez, zuhaitz eta zuhaixka ezberdinak ezagutuko dira, baita basoetan bizi diren animalia batzuk ere.
- **Toki Alai Parketxea:** ikus-entzunezko eta erakusketa behatzeko tartea izango da.
- **Letona Korta Baserria:** ginkanan jasotako pistekin, basora goazenerako zuhaitz eta zuhaixkak identifikatzen ikasteko gakoak barneratuko dira.
- **Ibilbide didaktikoa (1,5 km):** aldez aurretik ikasitako guztia bertatik bertara ikusteko aukera izango da ibilbidean zehar.







# Explorando el bosque

## Objetivo general

Conocer el bosque autóctono, así como la fauna y la flora asociada para promover actitudes de conservación de la naturaleza.

## Actividades

- **Yincana:** mediante varias pruebas se conocen diferentes árboles y arbustos, así como algunos animales que habitan en el bosque.
- **Parketxe Toki Alai:** se podrá visitar la exposición y ver el audiovisual.
- **Caserío Letona Korta:** con las pistas conseguidas en la yincana, aprenderemos algunas claves para identificar árboles y arbustos en el bosque.
- **Itinerario didáctico (1,5 km):** durante el recorrido, contemplaremos in situ lo aprendido previamente.



# Gizakia Urkiolan

## Helburu orokorra

Gizakia eta Urkiolako Parke Naturalaren arteko elkarrekintza aztertzea, gaiarekiko ikuspegi kritikoa bultzatzeko.

## Ekintzak

- **Ibilbide didaktikoa (1,5 km):** orientazio joko baten bidez ohitura zaharrak eta giza jarduerak ezagutuko dira.
- **Toki Alai Parketxea:** ikus-entzunezkoa eta erakusketa. Urkiolako azken hartza eta ikazkintza landuko dira.
- **Letona Korta baserria:** ingurunearen erabilera eta giza jarduerei buruzko joko elkarreragilea.





# El ser humano en Urkiola



## Objetivo general

Estudiar la interacción del ser humano con el medio natural para fomentar una actitud crítica.

## Actividades

- **Itinerario didáctico (1,5 km):** mediante un juego de orientación se conocen las tradiciones antiguas y las diversas actividades humanas.
- **Parketxe Toki Alai:** audiovisual y exposición. Se incide en el último oso de Urkiola y el carboneo.
- **Caserío Letona Korta:** juego interactivo sobre los usos y las actuaciones humanas en el medio.

# Urkiolaz blai!

## Helburu orokorra

Urkiolako inguru naturalaz gozatuz, ingurunearekiko begirunea eta talde harremanak era ludiko batez lantzea.

## Ekintzak

- **Zentzumenen ibilbidea:** zentzumenen bidez basoa aztertzen da. Jarduera hau 1., 2., 3. eta 4. mailakoekin burutuko da.
- **Ginkana:** pista eta froga ezberdinak gaindituz, asmakizun baten atalak lortuko dira. 5. eta 6. mailakoei zuzendurik dago.
- **Toki Alai Parketxea:** ikus-entzunezkoa eta bisita gidatua.
- **Bilaketa jolasa:** basoko elementuak beste ikuspegi batetik hautemateko dinamika.
- **Ibilbidea (3 km):** inguruaz gozatzeko, mendatearen inguruan ibilbide zirkularra.





# ¡Imprégnate de Urkiola!





## Objetivo general

Acercarse a la naturaleza de Urkiola de una manera lúdica profundizando en las relaciones de grupo.

## Actividades

- **La ruta de los sentidos:** se explora el bosque a través de los sentidos. Para alumnado de 1°, 2°, 3° y 4° curso.
- **Yincana:** tendrán que superar diferentes pistas y pruebas para resolver una adivinanza. Para alumnado de 5° y 6° curso.
- **Parketxe Toki Alai:** audiovisual y visita guiada.
- **Juego de exploración:** dinámica para percibir los elementos del bosque de una manera diferente.
- **Itinerario (3 km):** ruta circular alrededor del puerto, para disfrutar de la naturaleza.

# Urkiolako pagadia



## Helburu orokorra

Urkiolako Parke Naturaleko ekosistema nagusienetariko baten inguruko ezagutzan sakontzea: pagadian hain zuzen ere. Baita denboran zehar gizakiak eragindako aldaketak eta erabilerak ere.

## Ekintzak

- **Toki Alai Parketxea:** erakusketaren bitartez eta ikus-entzunezkoaren zein taldeko dinamika baten laguntzaz, ikasleriak pagadiko alde desberdinak ezagutuko ditu.
- **Ibilbidea (3 km):** hipotesiak eginez eta egiaztatuz Urkiola mendatearen inguruan dagoen pagadi bat aztertuko da.



# El hayedo de Urkiola

## Objetivo general

Profundizar en el conocimiento de uno de los principales ecosistemas del Parque Natural de Urkiola: el hayedo, así como su transformación y usos por el ser humano a lo largo del tiempo.

## Actividades

- **Parketxe Toki Alai:** audiovisual y dinámica de grupo para que el alumnado descubra aspectos del hayedo a través de la exposición.
- **Itinerario (3 km):** mediante la formulación de hipótesis y su verificación, el alumnado examina un hayedo del entorno del puerto de Urkiola.





# Gizakiaren aztarna

## Helburu orokorra

Urkiolako Parke Naturalean gizakiaren presentzia aztertzea baita inguruan izandako eta izaten ari den eragina. Ingurumen kontserbaziorako babestutako natur guneen garrantziaz ohartarazi.

## Ekintzak

- **Ibilbidea (7 km):** Urkiola Parke Naturaleko ibilbiderik ezagunenetakoa da: Santutegia-Urkiolagirre-Asuntza-Santutegia. Lurraldearen erabilerak eta paisaiaren eraldatzea aztertzen dira.
- **Toki Alai Parketxea:** ikus-entzunezkoa eta erakusketaren bitartez, Parkean historiaurretik gaur egun arte gizakiaren aztarna ezagutzeko ekintzak.







# La huella humana



## Objetivo general

Analizar la presencia del ser humano en el Parque Natural de Urkiola y la influencia que ha tenido y tiene en la actualidad en el medio. Valorar la importancia de los espacios naturales protegidos para la conservación del medio ambiente.

## Actividades

- **Itinerario (7 km):** se trata de uno de los itinerarios más emblemáticos del Parque Natural de Urkiola: Santuario-Urkiolagirre-Asuntza-Santuario. Se incide en los usos del territorio y en la evolución del paisaje.
- **Parketxe Toki Alai:** audiovisual y actividades para que el alumnado, a través de la exposición, descubra la huella humana en el Parque desde la prehistoria hasta hoy en día.

# Ekonomia zirkularra gaztaren inguruan



## Helburu orokorra

Urkiolako aldirietan ingurumenarekin jasangarria den enpresa bat ezagutzea, baita gizakiak ingurune naturalean duen eragina aztertzea ere.



## Ekintzak

- **Ardi ustiapen batera bisita:** bisitaldia Otxandio herrian dagoen Kerixara baserrian burutuko da. Ekonomia zirkularra jarraitzen duen ustiapen hau aztertuko dugu. Artzainaren bizimodua, ardi latxaren ezaugarriak eta Idiazabal gaztaren ekoizpena ezagutuko ditugu.
- **Toki Alai Parketxea:** Parkeari buruz ikus-entzunezkoa eta bisita gidatua.
- **Ibilbidea (2,5 km):** Urkiolako mendatearen inguruetatik burutuko den ibilbidean, programarekin erlazionaturiko edukiak landuko dira (paisaia, abeltzaintza, artzaintza, baso lepatua, eta abar).

***OHARRA:** ardi ustiapenera bisita ordainpekoa da.*



# Economía circular en torno al queso



## Objetivo general

Conocer un ejemplo de empresa sostenible con el medio ambiente en las inmediaciones de Urkiola y analizar la influencia del ser humano en el medio.

## Actividades

- **Visita a una explotación ovina:** la visita se realizará en Otxandio, en el caserío Kerixara. Analizaremos esta explotación que practica la economía circular. Conoceremos la vida pastoril, las características de la oveja latxa y la elaboración del queso Idiazabal.
- **Parketxe Toki Alai:** audiovisual sobre el Parque y visita guiada.
- **Itinerario (2,5 km):** se trabajarán conceptos relacionados con el programa (el paisaje, el bosque trasmocho, la ganadería, el pastoreo, etc.) en un itinerario por los alrededores del puerto de Urkiola.

***NOTA:** la visita a la explotación ovina es de pago.*



# TOKI ALAI Parketxea






Urkiola mendatea 8 - 48211 Urkiola (Abadiño)

**94 681 41 55**

urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus





## Nola heldu

### Bizkaitik

- **12 m baino gehiagoko luzera** duen autobusa:
  - Dimako mendatetik (BI-2543 errepidea)
  - Barazar mendatetik (N-240 errepidea)
- **12 m baino gutxiagoko luzera** duen autobusa: Urkiolako mendatetik (Durango).

### Arabatik

Gasteiz eta Durango elkarlotzen dituen A-623 errepidetik.

## Cómo llegar

### Desde Bizkaia

- Autobús de **más de 12 m de largo:**
  - Por el puerto de Dima (carretera BI-2543)
  - Por el puerto de Barazar (carretera N-240)
- Autobús de **menos de 12 metros de largo:** por el puerto de Urkiola (Durango).

### Desde Álava

Por la carretera A-623 que enlaza Vitoria-Gasteiz con Durango.